

The word 'mikra' is written in a white, cursive script font, centered within a circular red area that has a fine, grid-like texture. The background of the entire image is a photograph of a circus performance. A large, silver metal structure with red fabric slings is the central focus. In the foreground, a man and a woman are walking across a dark, reflective mat. The man is wearing a black tank top and grey pants, and the woman is wearing a grey and white patterned dress. In the background, a crowd of people is watching the performance under a concrete overpass.

kaleko zirku garaikide pieza



SINOPSISIA

Akrobaziaren munduak bere baitan “normaltzat” duen “perfekzioaren” bilaketan aurkitzen dira bi akrobata eszenatoki batean. Bide horretan oztopo izango diren, ezadostasunek, arazoek eta empatia faltak, sentitzen direna eta besteek beraiengan ikusten dutenaren artean dagoen aldea aztertzeraz eramango ditu.

Nola identifika gaitezke erakusten dugunaren eta garenaren artean? Aske bizi dugu geure nortasuna?





Genero eta rol estereotipoetatik abiatuz, guztiok bizi ditugun, gurasotasun, edo identitatea bezalako gaien zertzeladekin, botere harremanak ikusarazteko, zirku disziplinak akrobatikoak lengoia gisan baliatzen dituen pieza da mikra.

ZERGATIK MIKRA?



Gizartean sarritan azkenean zenbaki bat soilik gara. Baina munduaren aurrean txiki izan arren bakoitzak mundu oso bat gordetzen du barruan. Gure kasuan, estereotipoetan oinarrituz, besteek gugatik uste duten horren ezberdin senitzeak batzen ditu gure mikrak. Bion “mikra” bat sortu dugun arte. Zirku disziplinetatik gatoz antzerkitik baino gehiago eta zirkuaren balio komunikatzaile eta trasformatzailean sinistuz, gizartearen iruditegia aldatzeko hau guztia gure mikraren txikitasunetik kontatu nahi dugu denok berdinago sentitzeko.

FITXA ARTISTIKOA



Amancay
Gaztañaga
Sagarzazu
Guayaquil
1980
Zuzendaria

Iraia
Elias
Muniain
Zarautz
1980
Zuzendaria

Eider
Goiburu
Moreno
Orio
1980
Generoan
aditua

Ane
Arruti
Lopetegi
Zarautz
1985
Soinu
espazioa

Irati
Gonzalez
Jaimerena
Irun
1986
Akrobata

Koldo
Arakistain
Irazusta
Zarautz
1985
Akrobata

FITXA TEKNIKOA


- 7x7x7metro karratuko espazio laua (inklinaziorik gabea, galtzada laua, ez adokinak ezta grabilazko lurra) eta garbia
- 230vko hargune (toma) bat musika eta argientzat
- Furgonetarekin iristea posible den tokia izatea
- Muntaia-desmuntaiarako laguntza pertsona bat
- Muntaia+prestaketa=3h/ Desmuntaia=1'30h
- 4 metrotara iritsi ahal izateko eskailera bat

BESTELAKO BEHARRAK

- Aldagela bat eta dutxa
- Furgonetarentzat aparkalekua
- Ur botilatxoak

ESPASIO ESZENIKOA

- Estructura da gure espazio eszenikoa, hortaz, oinarriaren perimetroaz gain metro bat beharko dugu.
- Klean izango denez, laua eta garbia egongo den espazioa izatea beharrezkoa da.



PIEZAREN EZAUGARRIAK

Iraupena ————— **40 min.**

Publiko mota ————— **Adin guztiak**

Pieza mota ————— **Kaleko pieza**

Generoa ————— **Zirku garaikidea**

Lengoaia ————— **Binakako akrobazia lurrean eta trapezioan, oihalak, antzerkia eta dantza**





KONPAINIA

Irati Gonzalez Jaimerena eta Koldo Arakistain Irazusta
gara konpainia



Irati (1986) Irakaskuntzaren mundutik dator (IVEF), akrobaziari oso lotua egon da betidanik gazteagotan ginmasia artistikoa, akrosport-a eta dantza lantzen zituen.

Koldo (1985) malabare eta monozikloaren ildotik ezagutu zuen zirkua eta Bartzelonan zirku ikasketak burutu ostean binakako akrobazietan zentratu zen.

2017ko Irailean hasi ginen elkarrekin entrenatzen. Gure zirkuaren lehen bi biratan eszenatokia elkarbanatzeko aukera izan genuen .2019an KARRIKAN laguntza jaso ondoren, Berdinki zirku garaikide konpainia eratu eta “mikra” gure lehen lana sortu genuen.



KARRIKAN PLATAFORMAREN PARTE- HARTZEAREKIN



Kaleko arteen sorkuntza bultzatzeko sortutako plataforma da karrikan beronen helburua Euskal herrian eta euskaraz sortutako lanak bultzatu eta ikusaraztea da. Hainbat fase pasa eta gero, aukeratuak izan gara eta honek mikra pieza sortzeko baliabide ekonomiko zein administratiboak eman dizkigu.

Karrikan



BESTELAKO KOLABORAZIOAK



ENTITATEAK



NORBANAKOAK

- Arkaitz Jimenez
- Aitor Martinez
- Imanol Etxeberria
- Egoitz Bengoetxea
- Nagore Martinez



KONTAKTUA



berdinkizirkus@gmail.com



[berdinkizirkus](https://www.instagram.com/berdinkizirkus)



[@berdinki](https://www.facebook.com/berdinki)



Irati 669002604 / Koldo 606084987



mikra

kaleko zirku garaikide pieza



ki

Zirku garaikide konpainia

OHARRAK

Dossier honek eta bertako datu batzuk aldaketak jasan ditzakete, muntaia denborak, iraupena, argazkiak etab.

Eskerrik asko pieza honen sortze prozesuan parte hartu edo lagundu duzuten guztioi.

